



148. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2020ko irailaren 24an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak:

Alex Oliden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Maidar Alberdi Yeregui, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Marina Bidasoro Arocena, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Cristina Vicente Iciar, and.
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illaramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak:

Maddi Aldalur Osa, and.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre

Euskaraldiko mozioa bozkatu behar dugu ea gaurko osoko bilkuran tratatzen dugun edo ez,

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0



Abstentzioak: 0

ERABAKIA 1.- Euskaraldiko proposamena tratatzea erabakitzen da.-

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(147. zbkia – 2020.07.29)**

147. akta zbkia onartutzat ematen da 2020.07.29koa

2.- OGASUNA.-

2.1.- IRIZPENAK.-

2.1.1.- UDALAREN ETA KIROL PATRONATOAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO UZTAILAREN 21EKO, KONTUEN BATZORDE BEREZIKO IRIZPENA ETA TXOSTENA, 2019KO KONTU OROKORRARI DAGOKION ONARPENA.

AURREKARIAK

1.- 2020ko apirilaren 27an 2019ko aurrekontuen likidazioak onartzen dira, Udalari eta Erakunde Autonomoei dagozkienak, Kirol Patronatua.

2.- 2020ko uztailaren 21ean, 2019ko Kontu Orokorra aurkezten da Kontuen Batzorde Berezian ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

IRIZPENA ETA TXOSTENA

Ondorioz, batzorde honek aldeko irizpena jasotzen du honako botoekin:

Aldeko botoak: 4 (2 EH Bildu, 2 EAJ).

Abstentzioak: 0.

Aurkako botoak: 0.

Erabaki du, PROPOSAMEN hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

a- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua araberara.

b- Jendaurreko epea amaitutakoan eta aurkeztutako erreklamazioak edo oharrak erabakita, udalbatzaren onespenerako jarriko da.

c- Kontu Orokorren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera.

Kontu orokorra onestea eta jendaurreko erakustaldian ezartzea.



Zumaian, 2020ko uztaillaren 21ean

Batzordeko Lehendakaria

Kontu-hartzailea

Batzordean aurkeztu ziren, beraz, bozkatzera pasatzen da

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Udalaren eta Kirol Patronatuaren kontu orokorra onartzen da.-

2.- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua araberara.

Jendaurreko epea amaitutakoan eta aurkeztutako erreklamazioak edo oharrak erabakita udalbatzaren onespenerako jarriko da.

3.- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren araberara.

2.1.2.- ZUMAIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SEKTOREETAN COVID-19ARI AURRE EGITEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRALAREN 18KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO MERKATARITZA-ETA OSTALARITZA-SEKTOREETAN COVID-19RI AURRE EGITEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN OINARRIEN ONARPENA

AURREKARIAK

2020ko Irailaren 15eko Ogasun Batzordean zumaiako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan covid-19ari aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko beharrezkoak izan diren inbertsioak eta ekipamenduak, eta horiek bideratzeko beharrezkoak izan diren ikerketak egiteko gastuei aurre egiteko ez-ohiko diru laguntzen oinarriak aurkeztu ziren.

2020ko Irailaren 18ko ogasun batzordean dirulaguntzen behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko IRAILAREN 18an, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jaso du** hurrengo botoekin:



Zumaia Udala

2020IAKU0009-A20/6037

Aldeko botoak: 5 (3 EH-Bildu, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaia merkataritza eta ostalaritza sektoreetan covid-19ari aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko beharrezkoak izan diren inbertsioak eta ekipamenduak, eta horiek bideratzeko beharrezkoak izan diren ikerketak egiteko gastuei aurre egiteko ez-ohiko diru laguntzen oinarriak onartzea.

2. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2020ko irailaren 18an

Batzordeburua

Eztabaidatu ondoren bozketa pasatzen da

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia merkataritza eta ostalaritza sektoreetan covid-19ari aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko beharrezkoak izan diren inbertsioak eta ekipamenduak, eta horiek bideratzeko beharrezkoak izan diren ikerketak egiteko gastuei aurre egiteko ez-ohiko diru laguntzen oinarriak onartzen dira.

2. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

2.1.3.- UDALAREN 18. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

UDALAREN 18.KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-000019-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.



Zumaia Udala

2020IAKU0009-A20/6037

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2020ko irailaren 18an ospatzen den ogasun batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.601.133.20.02 2020	OTA SEINALIZAZIO BERTIKALA	3.000,00	3.000,00	0,00
1 0100.601.153.21.02 2020	SABAIA ERABILERA PUBLIKOA DUTEN GARAJEA	8.240,31	8.240,31	0,00
1 0100.601.160.00.01 2020	INBERTS.EURI UREN AZPIEGITURETAN	32.000,00	32.000,00	0,00
1 0100.601.166.00.01 2020	INBERTS.UR ZIKINEN AZPIEGITURETAN	33.000,00	16.077,45	16.922,55
1 0100.601.166.00.03 2020	OIKIA SANEAMENDUA	48.000,00	46.371,20	1.628,80
1 0100.622.173.00.01 2020	SANTIAGOKO ARRAPALA OBRA (ULO)	280.000,00	225.000,00	55.000,00
1 0300.227.334.01.04 2020	MUSIKA ESKOLA KONTRATUA	259.310,47	36.454,00	222.856,47
1 0300.226.334.00.94 2020	UDAKO AKALEKO PINTURA LEHIAKETA	1.200,00	1.200,00	0,00
1 0300.481.338.00.03 2020	SAN TELMO DIRU-LAGUNTZAK	19.500,00	17.000,00	2.500,00
1 0300.226.338.00.96 2020	SAN TELMOTAKO FESTAK	33.000,00	32.588,00	412,00
1 0200.481.326.00.02 2020	TXIRIBUELTA DIRU-LAGUNTZA	10.253,53	6.767,34	3.486,19
1 0500.480.231.00.03 2020	ZAINTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK	25.000,00	25.000,00	0,00



1 0100.601.133.20.03 2020	OTA PINTAKETA	5.000,00	5.000,00	0,00
1 0600.609.171.00.01 2020	BARATZAK	6.000,00	3.000,00	3.000,00
	GUZTIRA	763.504,31	457.698,30	305.806,01

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.601.161.00.01 2020	INBERTS.UR HORNIDURAN AZPIEGITURETAN	23.900,00	104.820,64	128.720,64
1 0100.624.153.41.01 2020	BRIGADARAKO FURGONETA	25.000,00	6.000,00	31.000,00
1 0100.227.920.00.01 2020	GARBIKETA	35.000,00	19.360,00	54.360,00
1 1000.721.431.00.01 2020	DIRU-LAG. INBERTS. MERKATARI, OSTAL.UKUE	0,00	12.000,00	12.000,00
1 0100.622.231.50.01 2020	EMAKUMEON ETXEA	0,00	287.385,16	287.385,16
1 0300.227.334.00.07 2020	COVID DOKUMENTALA	0,00	28.132,50	28.132,50
	GUZTIRA	83.900,00	457.698,30	541.598,30

Bigarrena.- Gaia aztertu ondoren, bozketa egiten da:

Aldeko botoak: 5 (3 EH-Bildu, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Luze eztabaidatu ondoren bozketa egiten da

Aldeko botoak: 9 boto (8 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 6 boto (EAJ-PNV,)

Abstentzioak: 0



ERABAKIA: 1.- Udalaren 18. kreditu aldaketa onartzen da.

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENAK.-

3.1.1.- 04 HA - ARRANGOLETAKO ZABALGUNEA, JUAN BELMONTE KALEA 3KO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 21KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO 04 HAARRANGOLETAKO ZABALGUNEA, JUAN BELMONTE KALEA 3KO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- Ikusirik 2020/06/15 eta 2020/07/20ko Lurralde antolamenduko batzordeetan informatu ondoren Zumaia 04 HAArrangoletako Zabalgunea, Juan Belmonte kalea 3ko Xehetasun azterketari hasierako onarpenera eman zitzaion 2020ko uztailaren 22ko 65/2020 zk. duen Alkatetza Dekretuz.

2.- Ikusirik indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, horren berri eman zaio ingurukoei eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2020ko abuztuaren 8) eta Diario Vasco egunkarian (2020/07/15) iragarkia argitaratu zela.

3.- Ikusirik espedientea jendurrean jarri dela 2020ko irailaren 15-arte eta 20 lan eguneko gutxieneko epea bermatuz eta jendurrean izan zen epean ez dela alegaziorik aurkeztu.

4.- Irizpena jaso dezan 04 HA-Arrangoletako Zabalgunea, Juan Belmonte kalea 3ko Xehetasun azterketari .

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko Irailaren 21ean, ondorengo botoekin

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)

Alex Oliden Antia (Bildu)

Marina Bidasoro (Bildu)

Oier Korta Esnal (EAJ)

Arritxu MarañonBasarte (PSEE)

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Lurralde Antolamenduko Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- LOIOLA ENPARAN SLU-k sustatu eta Xlark SLP Estudio de Arquitectura y Urbanismo Anton Pagola y asociadosek idatzitako, ZUMAIKO 04 HAARRANGOLETAKO ZABALGUNEA, JUAN BELMONTE KALEA 3KO XEHETASUN AZTERKETARI behin-betiko onarpenera ematea.



Zumaia Udala

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

2020IAKU0009-A20/6037
Zumaia , 21 Septiembre de 2020
Lurralde Antolamenduko
Arduraduna
Iñaki Ostolaza Esnal

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- LOIOLA ENPARAN SLU-k sustatu eta Xlark SLP Estudio de Arquitectura y Urbanismo Anton Pagola y asociadosek idatzitako, ZUMAIAKO 04 HA-ARRANGOLETAKO ZABALGUNEA, JUAN BELMONTE KALEA 3KO XEHETASUN AZTERKETARI behin-betiko onarpena ematea.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

3.1.2.- GAZTEENTZAKO, ETXEBIZITZEN ALOKAIURAKO DIRULAGUNTZEN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 21EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

AURREKARIAK

1.- Zumaia Udalaren helburuen artean dago gazteei laguntzea emantzipazio prozesuan.

Zumaia udalak gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko ordenantzari 2017ko irailaren 28an eman zion behin betiko onarpena.

Bestalde, 2018. urtean, ordenantza horretan hainbat aldaketa onartu zituen 2018-09-27ko osoko bilkuran eta urte berdineko urriaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ordenantza berria aldaketekin.

2.- Aurrekoa kontuan hartuta, udal gobernu taldeak araudi hori hobetzeko eta berria sortzeko lan egin du, besteak beste diru laguntzak indibidualak izan daitezzen eta gazte gehiagok horiek jasotzeko aukera izan dezaten.

3.- 2020-07-20 eta 2020-09-07eko Lurralde Antolamenduko Batzordeetan ZUMAIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA BERRIARI hasierako onarpena emateko irizpena idazteko irizpideen berri eman da



Ondorioz, 2020ko irailaren 21eko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)

Alex Oliden Antia (Bildu)

Marina Bidasoro (Bildu)

Arritxu MarañonBasarte (PSEE)

Aurka: Oier Korta Esnal (EAJ)

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA BERRIARI hasierako onespina ematea.

BIGARRENGOA: Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAO n argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat.

Zumaia, 2020ko irailaren 21a.
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA
Iñaki Ostolaza Esnal.

Bestea ere irakurtzen dut eta zerbait baldin badaukazue bietan egingo dugu, bat bestearekin lotura edukiko du seguru asko eta gero biak bozkatuko ditugu

3.1.3.- 36 URTETIK GORAKOENTZAKO, ETXEBIZITZEN ALOKAIURAKO DIRULAGUNTZEN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 21EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKAIURAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.

AURREKARIAK

1.- Zumaia Udalaren helburuen artean dago herritar guztiek etxebizitza duina izateko aukera ematea.

Gazteek ez ezik, 36 urtetik gorako hainbat pertsonak ere zailtasun handiak dituzte etxebizitza duina izateko.

2.- Aurrekoa eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat etxebizitzak alokatzeko diru laguntzak daudela kontuan hartuta, udal gobernu taldeak araudi berri bat sortzeko lan egin du 36 urtetik gorako pertsonak ere etxebizitzak alokairuan hartzeko diru laguntza izan dezaten.



Zumaia Udala

2020IAKU0009-A20/6037

3.- 2020-07-20 eta 2020-09-07eko Lurralde Antolamenduko Batzordeetan ZUMAIKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko irailaren 21eko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)

Alex Oliden Antia (Bildu)

Marina Bidasoro (Bildu)

Arritxu MarañonBasarte (PSEE)

Aurka: Oier Korta Esnal (EAJ)

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN ORDENANTZARI hasierako onespina ematea.

BIGARRENGOA: Ordenantzaren hasierako onespinen iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Zumaia, 2020ko irailaren 21a.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA

Iñaki Ostolaza Esnal.

Aurreko ordenantzaren 18-35 urte bitarteko bozketa

Aldeko botoak: 9 boto (8 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 6 boto (EAJ-PNV,)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- ZUMAIKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA BERRIARI hasierako izaeraz onartzen da.

2.- Ordenantzaren hasierako onespinen iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat.



36 urtetik gorakoentzako ordenantzen bozketa

Aldeko botoak: 9 boto (8 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 6 boto (EAJ-PNV,)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- ZUMAIKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN ORDENANTZARI hasierako onespena ematea.

2.- Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

4.- HEZKUNTZA ETA EUSKARA.-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1.- ZUMAIKO UDALA "HAURREN HIRIA SAREAN SARTZEAREN" ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 14KO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALA HAURREN HIRIA SAREAN SARTZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza batzordean Zumaia Udala Haurren Hirien sarean sartzeko proposamena aurkeztu zen.

2.- Haurren Hiria, tokiko politikan "umetasun" parametroa gehitzera deitzen duen proiektu politikoa da. Konfiantza eta autonomia, partaidetza eta osasunerako baldintzak berrezartzeko, gure erlazioak, baliabideak eta espazio komunak eraldatzeko helburua duen proposamena.

3.- 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza batzordean, aurkeztutako proposamena eztabaidatu zen.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 2 EHBILDU, 2 EAJ

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki



Zumaia Udala

Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

2020IAKU0009-A20/6037

1.- Zumaia Udala Haurren Hirien sarean sartzea.

IÑAKI OSTOLAZA: Hemen dion bezala, haurren hiria, tokiko politikan umetasun parametroa gehitzera deitzen duen proiektu politikoa da. Konfiantza eta autonomia, partaidetza eta osasunerako baldintzak berrezartzeko gure erlazioak, baliabideak eta espazio komunak eraldatzeko helburua duen proposamena, Zerbait komentatzeko baldin badaukazue,

Bozkatzera pasako gara,

Aldeko bozkek? 15 bozka aldekoak, (8 EH-Bildukoak, 6 EAJkoak eta 1 ES-SV)

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia Udala Haurren Hirien sarean sartzea.

4.1.2- ZUMAIKO UDALA "OINHERRI, HERRI HEZITZAILEEN SAREAN SARTZEAREN" ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 14KO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALA OINHERRI, HERRI HEZTZAILEEN SAREAN SARTZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza batzordean Zumaia Udala Oinherri Herri Hezitzaileen sarean sartzeko proposamena aurkeztu zen.

2.- Oinherri Herri Hezitzaileen sareak haurrari zentralitatea ematen dio balio batzuetan oinarrituta; haurren kultura aitortzea, haurrari parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea, aisia hezitzaile eta euskalduna eraikitzea, beti ere, aniztasuna, berdintasuna eta parekidetasuna aintzat hartuz, ingurune naturala eta kulturala kontuan izanda eta hori guztia auzolanean egitea komunitate sarea indartuta.

3.- 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza batzordean, aurkeztutako proposamena eztabaidatu zen.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko irailaren 14ko Euskara eta Hezkuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 2EHBILDU, 2 EAJ

Aurka:



ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soilak beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaia Udala Oinheri Herri Hezitzaileen sarean sartzea.

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia Udala Oinheri Herri Hezitzaileen sarean sartzea.

5.- GIZARTE ZERBITZUAK.-

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- ZUMAIAKO UDALEKO EGUNEKO ZENTROKO ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO IRAILAREN 8KO GIZARTE ZERBITZU BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO EGUNEKO ZENTROKO ARAUDIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

AURREKARIAK

1.- 2020ko irailaren 8ko Gizarte Zerbitzu Batzordean Zumaia Udaleko Eguneko Zentroko araudia onartzeko proposamena aurkeztu zen.

2.- 2020ko irailaren 8ko Gizarte Zerbitzu Batzordean Zumaia Udaleko Eguneko Zentroko araudia onartzeko proposamena eztabaidatu zen.

3- Irizpen honi Zumaia Udaleko Eguneko Zentroko araudia onartzeko proposamena erantsen zaio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko irailaren 8an, EAJ (2) eta Bildu (3) aldeko botoekin, aurkakok (0) eta abstentzioak (0) botoarekin, Hazienda Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2h artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko da):

1.- Hasiarako onarpenera ematea Zumaia Udaleko Eguneko Zentroko araudia onartzeko proposamenari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen



Zumaia Udala

Foru Arauaren 16. artikulua araberako udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeita hamar egunetan zehar.

2020IAKU0009-A20/6037

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. -Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia 2020ko irailaren 8a.
GIZARTE ZERBITZU BATZORDEBURUA
Sin.: Jose M^o Azkue Castillo

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia Udaleko Eguneko Zentroko araudia-ri hasierako onarpena ematen da. Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberako udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratuko da hogeita hamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. -Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Eta Galdera-eskarietan hasi aurretik, lehenago sartu dugun Euskaraldiko mozioa,

EUSKARALDIA 2020-ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Euskaraldiak indar eta ilusio kolektibo berri bat piztu zuen duela bi urte euskararen biziberritzearen esparruan. Euskal Herriko 225.000 lagunek hartu zuten parte ariketan. Zumaian ia 2.000 lagunek eman zuten izena, 1906 ahobizik eta 247 belarriprestek, eta Udalak ere Euskaraldia Udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena onartu zuen 2018ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran.

Euskaraldiaren bigarren edizioaren atarian gaude eta Zumaia Udaleko talde politiko guztiek, Udalaren parte hartzea bultzatu nahi dugu berriz ere. Izan ere, Udalari eredu izatea dagokio euskararen erabilera sustatzeko eginkizunean. Udalak eredu izan behar du euskaraz egiten INOIZ BAINO GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN!



Euskaraldiaren bigarren aldi honek badu berritasunik. 2020an belarriprestei eta ahobiziei proposatuko die, 15 egunetan, euren egunerokoan egin dezaten ariketa. Baina horretaz gain, entitateek (erakunde, merkataritza-ostalari, enpresa, elkarte...) euskaraz mintzatzeko gai diren hiztun taldeak identifikatu beharko dituzte: ariguneak. Horrela, taldean ere hizkuntza ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko ariketa egin ahal izango dute.

Ariguneak dira euskaraz lasai aritzeko guneak, bertako kide guztiek euskara ulertu eta denek edo gehien-gehienek ariketa taldean egitea erabaki dutelako. Entitatearen funtzionamenduan dagoeneko eratuta dauden taldeak edo espazioak dira, eta hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea dute helburu.

Euskaraldiaren xedeak bat datoz Zumaia Udalak ezarriak dituen helburu estrategikoekin: Euskaraldia tresna berritzailea da, lankidetzan oinarritua, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera urrats bat aurrera egiteko, gure Herriaren hizkuntza egoeran berdintasun orekatuago bat lantzeko. Gainera, Udalaren hizkuntza politika indartu eta sakontzeko aukera paregabea ematen digu Euskaraldiak, eta Udalak aukera horri erantzun nahi dio euskararen aldeko mugimendu sozial horren arrakastarako bere aletxoak jartzen.

Horrenbestez, Zumaia Udalak honakoa adierazi nahi du:

— Zumaia Udaltzako bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du eta hamabost eguneko ariketa egingo du, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

— Ordezkaritza politikoan egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea.

— Ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzekeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

— Udal egitura, langile nahiz udal ordezkarien artean, kanpo eta barne ariguneak osatzeko, babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Hizkuntza ohiturak finkatu eta egonkortzeko asmoarekin

Zumaia Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezkeen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.

— Zumaia Udalak, udal barruan ez ezik udalerrian ere, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

— Geuk ere euskaraz egingo dugu, inoiz baino gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!
Zumaian 2020ko irailaren 24an

EHBILDU EAJ PSE

Aldeko botoak: 15 boto (8 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Euskaraldia 2020-adierazpen instituzionala onartzen da



Zumaiako Udala

2020IAKU0009-A20/6037

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria